

# Noaia!!!

www.noaia.com



Ostiral honetan Sutegin,  
"Xentimorik gabe" antzezlan

Oiana Blanco, Olinpiar Jokoen atarian

"Nire eskuetan dago"



Marka berriak aurkituko dituzu!

skunkfunk

emerillolimon

PRIVATA

**Marije**  
Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL



**FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

**ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:**  
Deitu ZUZENEAN gure ehorztetxera, zerbitzua ematen hasteko denbora murriztuz, izapide guztietaz arduratuko gara eta **BONIFIKAZIO** berezi bat zuen polizan

**ASEGURU GUZTIAK  
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK  
ERRAUSKETAK  
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA**

943 36 21 63 (24H)  
660 388 652 - 608 16 77 92

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Ordu-tegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- NOAUA! •Udaletxea •Kiroldegia
- Saizar •Aliprox •Aginagako Arrate taberna
- Zubietako Alamandegi taberna

**Tren eta autobus**

ordutegia 11/12

Noaua!!  
www.noaua.com

## Albistea iruditan !

### Bizi! mugimendukoak atez ateko bilketa ezagutzen izan dira

**D**eshazkundera, antimundialismo edo altermundialismoa, ekologia, justizia soziala eta ingurumenaren inguruan lan egiten duen Baionako Bizi! mugimenduko kideak, Usurbilgo eta Hernaniko atez ateko bilketa esperientziak ezagutzen izan dira berriki. Usurbilgo Udal ordezkartzaren eta Zero Zabor bilguneko kideen eskutik, sistemaren ezaugarrien eta lortu diren emaitzen berri jaso zuten.



URRIAREN 22AN ATEZ ATEKO BILKETA EZAGUTZERA HURBILDU ZIREN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneako Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

## Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldúa, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

## Amaren baladak jarraitzen du

**B**adira hiru hilabete bigarren hankagorria etxera iritsi zenetik. Nahiz eta ez garen hasiberriak lan hauetan (hiru urte ditu zaharrenak), "nobato" handiena bezala senti arazten naute egoera berriek:

-Nobedadeetako bat pitilinarena da. Pardel aldaketa bakoitzean bonbak desaktibatzen baino kontu gehiagorekin ibili behar zara, izan ere, mikrosegundu bat deskuidatu orduko, ZAS!, aingerutxoaren 'mangerak' bete betean blai uzten zaitu. Anoetako aspersionek baino potentzia handiagoa dauka gure txikitoak!

-Logistikarena ere zaildu egiten da. Zer esango dizuet. Ume batekin nahikoa traste ez eta birekin Aconcaguara igotzeko baino motxila handiagorekin atera behar duzu kalera. Zaharrenarentzat botila ura, merienda, beti sobran daukan jertsea, mukizapiak, lurrean margotzeko tizak, bizikleta (kasko eta guzti),... Eta txikiarentzat pardelak, toallitak, aldatzeko arropa (ziur lehen aipatutako txorrotadak bustiko duela), manta, gainean eramateko kanguroa... Eta noski, hau guzti hau osatzeko, *sillita*. Kasik hobe aterako litzaiguke asto-xextuekin aterako bagina!

-Beste berrikuntza bat txikia titian daukazunean oso egoera 'bulnerablean' geratzen zarela da. Zergatik? Titia ematen zauden bitartean zaharrenak nahi adina barra-baskeri egin dezakeelako zure mugikortasun falta aprobetxatuz: etxeko paretak margotu, sukaldeko hirinarekin espermentatu, parkeko hondar-tokian sartu eta kroketa bat bihurtu, eta abar. Nolabait konparatzeko, inpala kume bat lehoi talde baten ondoan bakarrik geratzea bezalakoa da. Malo...

-Loa ere desberdin bizi duzu. Esan daiteke, bideo-jokoetan gertatzen den bezala, pantailaz pasa egiten duzula bigarren umearekin eta maila ere zaildu egiten dela. Orain ez da nahikoa umeak lo araztearekin, orain lotan mantendu behar dituzu biak! Izan ere, goizeko 4tako titialdian txikia negarrez hasten bada eta zaharrena esnatu, akabo! Berriro hasi behar biekin! Umearen negarrak gauean sortzen duen estres maila altuari gertatzen zaionaren kezka gehitu behar zaio, ETA BAITA ERE zaharrena ez esnatzeko beldurra! Ja, zertarako behar ditut nik kirol extremoak horrelako gauak edukita?

Eta oraindik badira gehiago...

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idóia Torregarai

Ika-mika !!

## "AUKERA" Euskal Eskola Publikoa Usurbilen bultzatzen dugunoi Lakuara bilera batera deitu digute

**2**011ko azaroaren 8an Eusko Jaurlaritzan, hau da, Lakuan, Hezkuntzako Sailburuorde den Marisol Estebanekin eta Gipuzkoako lurralde ordezkari den Julen Bengoetxearekin bilera bat dugu. "AUKERA" Euskal Eskola Publikoa Usurbilen osatzen dugunok interlokuzio zuzena dugu Eusko Jaurlaritzarekin.

Bileran landu behar dugun gaia bakarra da; hau da, Usurbilen Eskola Publikoa izateko aukeraz hitz egitea. Gure helburua, epe labur batean, Usurbilen Eskola Publikoa izatea baita. Horren inguruan Lakuako Gobernuaren konpromezua lortu nahi dugu.

Horretarako, "AUKERA" taldeko kideok, Euskal Eskola Publikoa Usurbilen gauzatu ahal izateko aukeraz

eta ahalbideetaz txostena idazteko asmoa dugu eta Hezkuntzako Sailburuordeari aurkeztuko diogu.

Jakin badakigu, ez dela garai onena proiektu berriak hasteko, ez dela garai ekonomiko onena inbertsio berrietan hasteko. Euskal Erakunde guztiak ahalegin handiak egiten ari dira aurrekontuak egokitzeko. Baina, udal ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako ardura-dunak, biak batera eta norabide berdinean arraunketan jarriko balira, proiektuak aurrera egingo duela uste dugu. Adibide moduan, Orioko kasua azalduko dugu. Orioko Eskola Publikoak derrigorrezko bigarren zikloa osatu behar du eta 16 urte arte luzatu. Horretarako eraikuntza berri bat egin behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaria eta

Orioko alkatea (Bildu) eraikuntza hori aurrera ateratzeko akordio batetara iritsi omen dira eta aurrera egingo dutela jakin dugu.

Esan behar dugu, Usurbilgo udal arduradunekin edukitako azken bileran hitzezko konpromezu bat lortu genuela: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailekoekin eduki behar dugun bileran, Usurbilen, eraikuntzarekin hasteko konpromezua lortuko bagenu, era apalean bada ere, Udalak, eskola eraikitzeke lur sail bat aurkitzen saiatuko dela.

"AUKERA" taldekook asmo honekin goaz Gasteizera. Usurbilgo Euskal Eskola Publikoa, era apalean bada ere, hasteko konpromezua lortzera.

"AUKERA" Euskal Eskola Publikoa

## Mobilizazioekin jarraituko dute Michelingo langileek

**U**rriaren 19an egin bezala, astebete beranduagorako hilaren 26rako ere lanuzteak deitu zituzten Michelingo langileek. Ondoko irudian ageri den moduan, eguerdi partean lantegi aurrean elkarretaratu ziren.



EGUN HAUETAN ELKARRETARATZEAK  
 EGITEN DIHARDUTE.

Ez bakarrik Lasarte-Orian, mobilizazioak Gasteizen eta estatu espainiarrean Michelinek dituen gainerako plantetan ere deituak baitzeuden. Lantegi guztiotan oraindik adosteke dagoen lan hitzarmen duin bat izatea galdegiten dute. Eskaera horrekin bat egin dute sindikatu guztiek: ELA, LAB, ESK, CGT, CCOO, UGT eta CSI-k.

Urriaren 26ko elkarretaratzean Michelingo Langileen Batzordeak iragarri zuenez, lan gatazka konpondu artean, mobilizazioekin jarraituko dute, azken elkarretaratzeko deitzaileek prestaturiko pankartak zioen moduan, "hitzarmen justu eta arrazoizko baten alde".

## Odol emaileen bilkuran, gazteak odola ematera deitu dituzte

**O**ria Beheko bailarako odol emaileak omendu zituzten urriaren 23an, Usurbilen ospatu zen ekitaldian. Bide batez, datorren astelehenean azaroak 7, odola emateko aukera berri bat izango da Usurbilen, 18:00etatik 20:30era ambulatorioan.



URRIAREN 23AN ORIA BEHEKO  
 ODOLO EMAILEEN BILKURA EGITEN ZEN.

Omenaldira bertaratu ziren odol emaile elkarteetako ordezkariak eta baita Usurbilgo Udaleko gizarte ongizate alorreko zinegotzi Jone Urdanpilleta ere. Zorion eta eskerrik beroenak eman zizkieten omenduei, "bereziak, pertsona apartak zaretelako". Odola ematea esku zabaltasunean eta elkartasunean oinarrituriko ekimena dela gogorarazi zuen, "bizitza gehien salbatu dituen ekintza humanitarioa. Ez duzue soberan dagoen

ezer ematen, denok bizitzeko behar dugun zerbait baizik".

Odol emaileen elkarteetatik belaunaldi berriei deia egin zitzaion, gazteak ere odola ematera joan daitezten. "Gure esperientzietatik, gutako bakoitzak ia gazte bat eraman dezakegun", erronka jarri zuten datozen odol emate saioetarako.

## Egonean Egon Eguna ospatu zuen Auzolanek

**U**rriko lehen asteburuan burutu ziren topaketen ostean, hitzordu berri bat finkatu zuen Auzolan Elkarteak joan den urriaren 25erako; Egonean Egon Eguna. Auzolan proiektuaren eta gai berari buruzko liburuaren aurkezpenak iragarriak zeuden goizerako, eta gero hainbat herritar hurbildu ziren frontoian ospatu zen herri bazkarira.



BAZKARIA FRONTOIAN IZAN ZEN.

## Urriaren 25ean, herri eskolan elkartu ziren ITAYA-koak

**E**usko Jaurlaritzak urriaren 25erako deitua zuen Euskadi Eguna, jai eguna izan zen. "Jai egun arrotza ukatzeko" ordean, ITAYA Gazte Asanbladako kideak herri eskola antolatatu zuten egun berean. Arbel eta eserlekuak jarrita, urriaren 25eko egunaz jardun zuten eguerdi partean, Mikel Laboa plazan inprobisatu zuten ikasgela modukoan.



MIKEL LABOA PLAZARA  
 AULKIAK ATERA ZITUZTEN.

**Errazkin S.L.**  
 igeltseritza orokorra  
 943 372 679 eta  
 649 435 470  
 kale nagusia 47, behe A

Zuen  
 publizitatea  
 hemen  
 943 360 321  
 publizitatea@noaia.com

IAIETXEA - TABERNA  
**BELARTZA**  
  
 943 37 60 82

**Eguneroko menuak eta  
 larunbatetan menu bereziak**

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, raziok...
- Umeentzat menu bereziak
- Atsedeen egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN  
 Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

# %2,9ko igoera 2012ko ordenantza fiskalei

**%** 2,9ko KPI-aren igoera aplikatzeko asmoa die Bilduk, urriaren 26an burutu zen ezohiko osoko bilkuran hasieraz onartu ziren 2012rako ordenantza fiskalei. Kasu gehienetarako, aipatu ehuneko baliatuko nahi du gobernu taldeak. Erreferentzia moduan, 2010eko abuztuko Gipuzkoako datua erabili dute. Halere, igoera honetatik kanpo geratuko diren zenbait zerga egongo dira. Progresibitatea izango da kasuotan aplikatuko duten beste irizpidea, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan adibidez.



URRIAREN 26AN ELKARTU ZEN UDALBATZA PLENDA, OHIKO JARDUNEAN.

Ordenantza fiskalak bozkatu aurretik, zenbait udal taldek gai honen inguruko proposamena baloratu zuten. Aralarretik Joxe Ramon Furundarenak, Bilduk aplikatu asmo duen KPIaren igoeraren eta salbuespenen alde agertu zen. Baina zerbitzuen gaineko zergari lotuta, abstenituko zirela iragarri zuen. Aldez aurretik Haur Eskolaren egun erdiko tarifaren igoerak eragin izan dituen desadostasunak direla eta. Gogorarazi zuenez, hainbat protesta izan ziren gurasoen aldetik, eta baita bajak ere kontu berarengatik.

Hamaikabat, ordenantza fiskalen igoerarako KPI aplikatzearen aurka agertu zen. Luisuari Ormaetxea bozeramailaren esanetan bestalde, Haur Eskolako tarifaren inguruko informazioa behar arren, falta zutela zioen eta honenbestez, gai horretan ezin zutela aldeko jarrera erakutsi. Hondakinen bilketari dagokionean, ordenantza fiskalen proposamenean atez ateko bilketaren tasak bakarrik islatzen direla gogorarazi zuen. Hamaikabat bosgarren edukiontzia aldez dagoenez, bozketa guztietan aurka agertuko zela iragarri zuen.

## Bozketa atalez atal

Udal ordezkariak atalez atal bozkatu zituzten datorren urterako ordenantza fiskalak. Emaitzak honakoak izan ziren:

### Ondasun higiezin buruzko zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Eraikuntza, instalazio eta obren zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Abstentzioa: Hamaikabat eta PSE-EE.

### Hirilurren balioaren gehikuntzaren

gaineko zerga: Alde: Bildu eta Aralar.

-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak burutzeagatiko zerga:

-Alde: Bildu.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: Aralar eta PSE-EE.

### Udal ondasun publikoak erabiltzeagatiko zerga:

-Alde: Bildu eta Aralar.  
-Aurka: Hamaikabat.  
-Abstentzioa: PSE-EE.

### Zerga kudeaketa eta bilketaren ordenantza:

-Alde: aho batez, Bildu, Aralar, Hamaikabat eta PSE-EE.

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**BORDATXO**  
edaritegia  
PINTXO BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

## Eztabaida hondakinen inguruan

**H**ondakinen kudeaketa hizpide nagusi zuten mozio bana aurkeztu zuten, Bilduk eta PSE-EE-k azken osoko bilkuran. Eztabaida piztu zen ingurumen eta nekazaritza zinegotzi Jose Maria Rivadeneyra eta PSE-EE-ko udal ordezkari Ricardo Cresporen artean.

### PSE-EE: Erraustegiaren alde

Ricardo Crespok irakurri zuen testuak, errauste plantako lanekin aurrera jarraitzea eskatzen zuen, lanak geratzeak eragin ditzakeen gastuak saihestu eta herriko hondakinen kudeaketa airean ez uzteko. "Udalbatzak erabat gaitzesten du hondakinak kudeatzeko xedaturiko planak edo zergatik gerarazteari", galdegiten zuen bere mozioak. Edukiontzien sistemara itzultzea proposatzen zuen Crespok, zabortegei guztiak ixtea eskatzeaz gain.

### Bildu: Lanak gelditzeko eskaera

Bilduk udalbatzan aurkeztu zuen mozioak zioenez, errauste planta egitasmoa "ahal den bezain pronto bertan behera uzteko eskatzen dio", osatu berri den Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari. Orain arteko lanen kostuak eta lanok gerarazteak eragingo dituenak Konsorzioko eta Aldundiko aurreko arduradanei egotzen die Bilduk, haiek kargua hartu berri duten ordezkari politikoei kostu hauen arduradun egiteko saiakera salatzearekin batera. GHK-ko aurreko taldeak hedabideetan zabalduriko datuak salatu zituen Rivadeneyrak, oinarririk gabekoak eta alarmistatzaletzat jotzearekin batera. Horren helburua, "herria engainatzea eta nahastea besterik ez dela" salatu zuen Bilduk.

### Eztabaida

PSE-EE-ren mozioa onartezintzat eta deitoragarritzat jo zuen Jose Maria



BILDU ETA PSE-EEKO ORDEZKARIEN ARTEAN EZTABAIDA PIZTU ZEN HONDAKINEN GAIAREN INGURUAN.

Rivadeneyra zinegotziak. "Usurbili erraustegiarekin aurrera jarraitzea planteatzea iraintzetik gertu dago", adierazi zion Crespori. Erraustegiko lanak gelditzeak eragin ditzaketen gastuen inguruan hedabideek kaleratutako zenbakiak "iritzi edo nahiekin nahastuta" daudela gaineratu zuen. Usurbilgo eredia Gipuzkoa osora zabalduko balitz, erraustegiaren beharrik ez legokeela ere gogorarazi zion zinegotzi sozialistari.

Crespok erreusarekin zer egin behar den galtzen zuen, "irtenbideren bat eman beharko zaio" zioen argibideak eskatzearekin batera. Bere mozioa Batzar Nagusiek onartu zutela ere adierazi zuen. Rivadeneyrak argi erantzun zion Bilduren hauteskunde programak zioena gogoraraziz; moratoria, erraustegia bost urtez geratzea, eta erreusarentzat irtenbideak bilatzea. "Zabortegeiak bilatu beharko dira, baina ez gaur egun ezagutzen ditugun bezalakoak. Aurreko zabortegeien aroa bukatua dago", adierazi zuen. Errauste plantako errautsekin ere zerbait egin beharko zela gogorarazi zion.

### Bozketa

Bilduren mozioa gehiengo osoz onartu zen artean, PSE-EE-k aurkezturiko testuak, Ricardo Cresporen eta Hamaikabaten babesas jaso zuen. Ez zen aurrera atera.

## Udal lanpostuen inguruko errekurtsioez

**U**surbilgo Udaleko eta Kirol Patronatuko lanpostuen aurrean, hamabi udal langileek aurkezturiko errekurtsioak, kasu batzuetan partzialki onartu ditu, beste batzuetan ez ditu onartu udalbatzak, urriaren 26ko ezohiko osoko bilkuran. Erabaki hau gobernu taldearen babesarekin eta Aralar, PSE-EE eta Hamaikabat taldearen abstentzioekin aurrera atera zen. Bozketaren aurretik, prozedura luzea izan dela gogorarazi zuen Mertxe Aizpurua alkateak. Gaineratu zuenez ordea, udal lanpostuen balorazioaren gaiak izan duen ibilbidea ez da hemen amaitzen. "Badira gauzak konpontzeko. Inplementazio fasearen atea irekitzen zaio orain", adierazi zuen alkateak.

## Eguneko Zentroko enpresaren kontratua urtebetez luzatuko da

**G**SR enpresak urtebete gehiagok kudeatuko du Kalezarren kokatua dagoen Eguneko Zentroa. Modu honetan, Udalarekin gehienez hamar urterako sinatua duen kontratua datorren azaroaren 17tik 2012ko azaroaren 16ra arte luzatuko da, udalbatzak urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez erabaki ostean. Udal aurrekontutik 179.864,40 euroko gastua bideratuko da bertara, udal diktamenen berri ematen denez, "2011ko eta 2012ko aurrekontuak konprometituz". Testu berean ohartarazten denez, "azaroari dagokion KPIa jakitean (abenduan) doituko da luzapen prezio berria, atzeraeragintasunez".

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**LATAILLADE**  
**ITURGINTZA**  
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua  
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

## Gobernu taldearen lehen 100 egunak, oposizioaren begietan

USURBILGO HAMAİKABAT

### “Geldotasuna nagusi”

Udal gobernuaren lehen hilabete hauen jardunaren balorazioa laburra izan behar du derrigorrez; geldotasuna baita nagusi. Udal martxa geldirik dago, ez da sumatzen aktibitatearik, aurreko gobernuak zintzilik utzitakoa nola ahala amaitu eta inertziak funtzionatzen da. Udal teknikari eta langileen esku dago kudeaketa.

Harrizkoa da ere oraingo gobernuaren eta Xabier Mikelen gobernu ohiaren arteko komunikazio eza; ez da izan transizio normalizaturik. Gobernu berria zerotik hasi dela dirudi, aurrekoen laguntzarik gabe.

Bitartean, erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzte: udal gobernu programa zehaztu eta jakinarazi, etxebizitza arloan lehentasunak finkatu, udalak duen egoera ekonomiko kritikoaurrean neurri eraginkorrak planteatu, Erresidentziaren asmoa ustela izan al den argitu, Eskola Publikoari buruz herritarrek duten eskaerari erantzun positiboa eman, etabar, etabar.

Hasiera geldoa izan dute. Gobernua osatzeko aukera zuen talde batek gauzak argiago izango zituelakoan geunden.

USURBILGO EAJ-PNV

### “Emaitza gutxi oraingoz”

Egia esanda gobernu berriaren “ukiturik” ez dugu gehiegi atzeman. Uztailean, ia arlo guztietako lehen batzorde informatzaileak egin ziren, eta ondoren oporrak. Iraila iritsi zen eta gauzak ez ziren gehiegi aldatu, oso batzorde gutxietara deituak izan ginen. Batzorde batzuk ez omen dira egin, batzordearen nondik norakoa izango den azterketa egin zain daudelako, edo teknikariaren gaisotasuna eta horrelakoei leporatuz. Beraz irailean ere ez genuen asko atzeman gobernu berriaren “ukiturik”.

Urria ere joan zaigu, irailaren antzeko ezer gutxi eginda. Garrantziako gaia izan dugu eskuetan, udal zergak. Azterketa handirik gabe, %2,9 igoko dira tasa guztiak, inguruko herriek aplikatzen hari diren % 3 igo beharrean. Zein irizpideak erabili dituzte?

- Udalak eman beharreko zerbitzuak eman ahal izateko ezarzen dira udal zergak, helburu hori betetzen al da gure herrian?
- Zein dira zerbitzu defizitarioak? Kasu hauetan ez al ego kiagoa zergak kostuaren arabera egokitzen joatea?
- Baita ere gure ustez kontuan izan beharko litzateke jasaten ari geran krisialdia ez dela momentu onena herritarrei presio fiskala igotzeko, beraz tasa guztien igoera onartu beharrean benetan defizitarioak bakarrik igotzea aukera hobetagoa dela iruditzen zaigu.

Baina hau guztia ondo egiteko egin den baino lana serio eta mardulagoa egin behar da. Asmoak onak izan arren ez da nahikoa, gestioak ere ona izan behar du. Esan dezakegu lana juxtu, eta emaitza gutxi eman dituela oraingoz udal gobernu berri honen bere lehenengo 100 egunetan.

USURBILGO PSE-EE

### “Etorkizuneko proiektuen berririk ez”

Lehenik eta behin esan nahi dut, giza talde zoragarri bat aurkitu dudala. Udal funtzionarioak oso profesionalak eta oso langile onak dira. Gainera uste dut zinegotzien artean oso giro ona dagoela eta hori ere eskertzekoa da.

Lehen 100 egunen balorazioari dagokionez, esan behar dut dezepzio-naturik nagoela. Udal gobernuak egunez egunekoari heltzen diola uste dut, arazoei iritsi ahala aurre eginez. Udal batzorde ia gehienetan ez dizkigute euren etorkizuneko proposamenak aurkeztu. Udal gobernu taldearen ekimena zein ildoetatik joango den ez dakigu oraindik. Egia da hala ere, Ingurugiroan eta Nekazaritzan ekimen-programa bat aurkeztu digutela eta bidezkoa da aitortzea.

Ulertzen dut oso garrantzitsua dela aurreko administrazioetik datozen proiektuei jarraipena ematea, herriak aurrera egin dezan. Baina konturatzeko bagara, Sekaia eta Agerrazpi, Atalluko garbigunea, kaxkoaren peatonalizazioa, Potxoenea eraikina, Kiroldegiko obrak... Denak aurreko legegaldikoak dira. Oraindik ez dugu mahai gainean etorkizuneko proiekturik.

Udal aurrekontu berriekin udal gobernu honen intentzioak ezagutuko ditugula espero dut, eta ekarpenak egiteko garaian, gainontzeko udal taldeak kontuan hartuko gaituztela, ekarpenak egiteko orduan.

USURBILGO ARALAR

### “Elkarrizketarako giro egokia dago”

Mertxe Aizpurua alkate andereak kargua hartzerakoan esandakoaren haririk, jarrera irekia dela azpimarratu behar dugu; hau da, informazioa emateko eta gainerakoek auzotziaz jasotzeko prest agertu dira. Beraz, lanerako eta elkarrizketarako giro egokia dagoela oro har, esan genezake.

Aipatu bestalde, hasieran gobernuaren parte hartzeko gonbita luzatu zigutela (Batzorde bat edo gehiago hartzeko ardura eta Gobernu Batzordean ordezkari izatea), baina euren egitekoa gauzatzeko hiru liberatu planteatzen zituztela eta gainerakoek ez zieten liberazio-zatirik eskaintzen ikusita, ez sartzea erabaki genuen. Izan ere, gure iritziz, alderdi bereko hiru liberatu gehiegiak dela iruditzen zaigu. Udal Kirol Patronatuan eta udalerrri euskaldunen mankomunitatean (UEMA) Aralarrek ordezkari bana du. Gure aldetik, jarra irekia eta eraikitzailea mantenduko dugu.

Esan bezala, oro har, giro ona dagoen arren, izan genuen hasieran desadostasunik alderdien eta zinegotzien ordain-saria finkatzeko unean. Udal gobernuak Bilduren sarrerak hobetzen eta gainerako alderdi guztien kaltetzen zuen proposamena egin zuen, beste inorekin hitz egin gabe. Ikusita gainerako alderdiak proposamenaren aurka jarri ginela, euren proposamena zuzendu eta aurreko legegintzaldiko formula mantentzea erabaki zen.

Beste kontu garrantzitsu bat. Herrian euskal eskola publiko baten aldeko “Aukera” guraso-taldea sortu da eta harremanak izan dituzte partidu guztiekin eta Gipuzkoako Hezkuntzako Ordezkariarekin. Beraien eskaerari eman daitezkeen soluzio guztiak aztertu behar dira. Bestalde Udarregi Ikastolak 2013ko irailerako eraikin berri bat egin nahi du eta finantziario egoki eta bideragarri bat landu beharko da udalean eta nola ez Udarregi Ikastolan bertan. Herriaren etorkizunerako hain garrantzitsua den gai honen jarraipen sakona egiten ari gara.

Urtea bukatu aurretik 2012ko aurrekontuen aurkezpena espero dugu eta gure auzotziaz egiteko ditugu.



Azaroaren 5etik aurrera,



egunkariarekin

# Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte



## sortuz jolasteko, jolastuz sortzeko

4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA

Azaroak 5, larunbata,  
lehenengo sorta

BERRIA + 3,5 €

karpeta eta  
ariketen CDA  
**OPARI**

## Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era,  
larunbatero kioskoan, BERRIAREKIN

Egilea: Karmela Cruz



Subordina



Elkarrekin...

Aukera ezazu,  
BIZI EUSKARAZ

**berria** info

## Xentimorik gabe, baina beti umorez

Ostegun honetan, Paul Riosen hitzaldi batekin abiatuko da Kulturaldia, NOAUA!k urtero azaro partean antolatzen duen zikloa. Larunbatean, ordea, Inazio Tolosa eta Ramon Agirre aktoreak izango dira Sutegiko oholtza gainera igoko direnak. Honakoan, gainera, eurak dira antzezanaren egileak. Ia beti beste baten gidoiaren morroi izatea tokatzen zaie baina honakoan Inazio eta Ramon dira gidoilari, eta Inazio eta Ramon dira aktore. Horrek ardura handiagoa eskatu dien arren, libreago aritzeko bidea eman die.

“Xentimorik gabe” doinuz eta umorez ziprztindutako antzezlana da. Ray eta Nik dira protagonistak. Mila saltsatan eta mila tokitan aritu diren musikariak. Ramon Agirreren esanetan, “hasieratik argi genuen titiriteroen mundua zela oinarria, jolas ildo nagusia hortik zihoala. Bi tipo hauek musikaren inguruan bizi behar zuten, eta oso gezurtiak izan”.

Obra honen beste bereizgarri bat hauxe da: umorea eta kantu ezagunak bidelagun, publikoarekiko konexioa berehalakoa izan ohi da.



INAZIO TOLOSA ETA RAMON AGIRRE, “XENTIMORIK GABE” OBRAKO AKTOREAK.

### Sinopsia bezain ona bada...

Antzezanaren aurkezpen moduko testua duzue hauxe: “Ray eta Nick bikotea sortu zen garaian artistak binaka ibiltzen ziren, guardiazibilak bezala: Simon & Garfunkel, El Dúo Dinámico, Al Bano eta Romina, Pantxoa ta Peio... Artista hauek bi hamarkada baino gehiago eman dituzte munduan zehar euren trebetasunak erakusten. Ez dago kontinenterik, ez hiri handi edo herrixkarik Ray eta Nik-en arteaz goratu ez duenik. Plajioaren erregeak titulua jaso zuten

aspaldi merezimendu osoz eta arrakasta zer den badakite, baita eskasia eta miseria ere. Xentimorik gabe izeneko ikuskizunean euren ibilbidearen pasadizoak eta gehiago kontatzen dituzte, justu etxera itzultzeko ordua heldu zaienean. Oraindik sasoi betean badaude ere eta munduko bazterrek nahasteko afizioa galdu ez duten arren, euren jatorriara bueltatzeko aholkua aintzat hartzea erabaki dute”.

Azaroaren 5ean larunbata 19:00h, “Xentimorik gabe” antzezlana Sutegin.

## Mursego: aparta, berezia, ezberdina

Askok egiten duten lehen galdera hau izaten da: zer esan nahi du Mursego hitzak? Saguzarrari mursego deitzen zaio portugesez. Eta badu banpirotik proposamen honek. Letretan ere nabaria da. Eta zein da Mursego? Maite Arroitauregi musikari eibartarraren ezizena da. Txeloarekin batera taularitzen den kantaria dela esatea, gutxi esatea da. Beste soinu tresna asko baliatzen ditu zuzeneko emanaldietan, eta loop delako sistemaren bidez, soinu geruzak sortzen ditu bata bestearen gainean, giro bereziak sortuz. Horrek egiten du ezberdin. Igandean Sutegin arituko da, 19:00etatik aurrera.

Anari eta Lisabo taldeekin batera aritu ohi da. Baina duela hiru urte inguru, bakarkako ibilbideari ekin zion. Mursego ezizena baliatzen du, ordea, bere kantu propioak plazaratzeko garaian.

Boza eta txeloa dira abiapuntu. Baina txeloa ez da Sutegira ekarriko duen musika tresna bakarra izango. Perkusioa, organoa, ukelelea edota pandereta ere jotzen ditu. Loop station pedal bat erabilita, doinuak doinuen gainean ezartzen ditu. Horren ondorioz, zuzeneko guztiak dira ezberdin. Eta hori ere bada Mursegoren beste bereizgarri bat.

Azaroaren 6an igandea, Sutegin arituko da 19:00etatik aurrera.



MURSEGO EZIZENAREN ATZEAN MAITE ARROITAJAUREGI EZKUTATZEN DA.

## 25 urteak ospatuko ditu DYAk asteburu honetan

**M**ende laurdena bete du Usurbil eta Lasarte-Oriako DYAk eta urteurrena ez da oharkabean pasako. Asteburu honetarako hainbat ekimen prestatu dituzte DYAk kideek. Larunbaterako bazkaria Dana Ona jatetxean. Eta igandean, egun osoko festa, Lasarte-Oriako Okendo plazan. Hona hemen egitarau osoa.

### Azaroak 5, larunbata

Bazkaria Dana Ona jatetxean. Izena alde zurretik eman behar zen.

### Azaroak 6, igandea

10:00 Rokodromoan, tonbola, umeentzako tailerrak, garraio ezberdinen erakusketa, formazio karpa...

13:00 Oilasko eta sagardo banaketa.  
17:00 Simulakroa. Arratsaldean, simulazioa. Lasarte-Oriako Okendo plaza.  
Antolatzailea: Usurbilgo eta Lasarte-Oriako DYAk.

### Bolondres berrien belaunaldia

Azaroaren 7tik 25era bestalde, lehen sorospenen inguruko ikastaroa burutuko da. Ohi bezala, bihotz biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... Egoera hau egin aurre egin jakiteko baliagarria izango da ikastaroa. Saioak, 19:00-21:00 artean eskainiko dira, Lasarte-Oriako Landaberri-Garaikoetxea Ikastolan, Atsotak 3 helbidean. Informazio gehiago eta izen ematea, 943 46 46 22 telefono zenbakian.

Joan den udan Usurbilen antolatu zen



DYAK BOLONDRES BERRIAK DITU.

ikastaro hau. Bertan parte hartu zuten, ondoko irudian ageri diren herritar gazte hauek: Ander Izeta, Imanol Orbegozo, Beñat Txueka, Manex Torrealdei, Jon Etxabe, Ane de Miguel, Garazi Artola, Aroa Etxeburua eta Nerea Zaldúa. Boluntarioen belaunaldi berrikoak ditugu.



## Berenjena erreak Idiazabal eta txanpinoi saltsarekin

**U**surbiltzen taldeak antolatuta ikastaro ezberdinak egin izan dira, hala nola, ogi ikastaroa, mermelada eta konfiterba ikastaroa, etxeko baratza edota sukaldaritzari buruzkoak.

Tarteka, garaian garaiko barazkiekin eginiko errezetaren bat aipatuko dugu.

Oraingo honetan, gure ikastaroetatik atera ez dugun arren, gure barazki otarrean urte sasoi honetan jasotzen ari garen barazki batzuekin prestatutako errezeta bat proposatu nahi dizuegu.

Berenjena erreak Idiazabal eta txanpinoi saltsarekin

Osagaiak lau lagunentzat:

- 2 berenjena.
- 250 gr barrengorri edo txanpinoi.
- tipula 1.
- porru 1.
- 250 cc esnegain likidoa.
- 25 gr ardi gazta.
- gazta birrindua.
- gatza.



BERENJENAK XERRATAN MOZTU BEHAR DIRA, LUZEETARA.

·piper mina.  
Prestaketa:  
Berenjenak xerratan moztu luzetara, 3-4 xerra ateratzeko moduan.  
Labeko bandejan jarri olio txorrotada batekin, urez ziprztinduta eta gatza eta piperminarekin.  
Ordu erdiz erre 180°C-tan eta atera labetik.  
Tipula, porrua eta potxatu zartagi

batean. Erdi eginak daudenean txanpinoiak gehitu zatituta.

Dena batuta, esnegain likidoa eta ardi gazta gehitu. Su baxuan irakiten eduki 5-10 min.

Berenjenei saltsa gaintetik bota, gazta birrindua gaintetik bota eta labean 5 minutuz gratinatu.

On egin!

## HITZALDIA

Paul Rios

"NAZIOARTEKO KONFERENTZIAREN EBAZPENA" azaroak 3,  
OSTEGUNA, 19:30h Sutegi (DOAN)

## ANTZERKIA

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa

"XENTIMORIK GABE" azaroak 5,  
LARUNBATA, 19:00h Sutegi (SARRERA)

Sarrera: 5€ (Txiribogan, Noaualn eta egunean bertan)  
Noauaiko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaualn aldeaz aurretik.

## MUSIKA

Maitte Arroitauregi

"MURSEGO" azaroak 6,  
IGANDEA, 19:00h Sutegi (SARRERA)

Sarrera: 5€ (Txiribogan, Noaualn eta egunean bertan)  
Noauaiko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaualn aldeaz aurretik.

## HITZALDIA ETA PROIEKZIOA

Xabier Olano eta Garazi Iturralde

"KAYAKSURF" azaroak 11,  
OSTIRALA, 19:30h Sutegi (DOAN)

Noaúa!  
www.noaúa.com



Udarrigo Ukele

NOAUAIKO KULTURALDIA 2011 11/11  
AZAROA



## Udarregi Sariketa finalerako sarrerak dagoeneko salgai jarri dira

Azaroaren 12an jakingo da nork Ajantziko duen Udarregi Sariketako lehen ediziooko txapela. Sei dira hautagaiak, hiru heldu eta hiru gazte. Final saiorako sarrerak salgai daude jada. Egun berean aurretik Kantu Taldekoak ere kalejiran ibiliko dira. Bertso kantu jira afarirako astebe-te baino ez da falta.

Aitzol Barandiaran, Patxi Etxeberria, Ane Labaka, Olaso, Maialen Velarde eta Luis Otamendi seikotea ailegatu da Bota Punttuba bertso eskolak estreinakoz antolatu duen Udarregi Sariketako finalera. Azken neurketa, azaroaren 12an, larunbatarekin jokatu da Agerialden ospatuko den bertso-afariaren baitan.

### Bertso-afariko menua

Otorduko menua honakoa izango da, antolatzaileek berri eman dutenez: has-teko, bakailu budina. Ondoren, pasta beltz freskoa otarrain eta barrengorriekin. Gero, idi isatsarekin eta barazkitxoekin betetako piperrak eta amaitzeko, arkumea txilindroi eran. Azkenburuko ananaz eta kremaz beteriko krepeak txokolatearekin, kafea eta kopak.

### Txartelak, 18 eurotan

Sarrerak alde aurretik Bordatxon eta Txiribogan eskura daitezke, 18 euroren



BERTSO-AFARIA BAINO LEHEN, KANTU JIRA EGINGO DA.

truke. Lehenago agortzen ez badira, egunean bertan ere erosi ahal izango dira. Txartelak eskuratu edota proposamenik egin nahi duenak, Bota Punttuba bertso eskolakoekin harremanetan jar daitezke: botapunttuba@gmail.com

### Kantuan eta bertsoan

Antolatzaileek ordea, final gaua hasi baino lehen jarria dute hitzordua, iluntzeko 19:00etan hain zuzen, Mikel Laboa plazan. Saioa girotzeko, afalaurretik kantu-jira burutuko baita Kaxkoan. Oraingoan ordea, Kantu Taldekoek Udarregi Sariketako finalean parte hartuko duten bertsolari bat baino gehiago bidelagun izango dituzte. Kantua eta bertsoa uztartuko dira beraz, hilaren 12an. Hauxe egitaraua:

19:00 Bertso kantu jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Ondoren, afaria eta Udarregi Sariketako finala Agerialden.

## “Bi azeri estu eta larri” antzerkia Santuenean

Patata Tropikala antzerki taldea Santueneko frontoi estali berrira gerturatuko da azaroaren 11n, “Bi azeri estu eta larri” izeneko haurrei zuzenduriko antzezlanarekin. Arratsaldeko 17:30ean hasiko den emanaldia 3-9 urte

arteko haurrei zuzendua egongo da. Amona Joxepak kontaturiko ipuin liluragarri batekin abiatuko da istorioa.

Santuenea Kultur Elkarteak eta Kutxak antolatutako emanaldia da hauxe, eta sarrera doan izango da.

## Usurbildarrak Tolosako Abesbatza Lehiaketan

Tolosan ospatu den Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan usurbildar batzuk hartu dute parte. Landarbaso Abesbatzarekin aritu dira kantuan Elixabet Eizagirre, Oihana Eizagirre, Maialen Pagola, Javi Puente, Iñaki Zugasti eta Agurne Alkorta. Baina kantari hauez gain, abesti batean beste bi usurbildar aritu ziren txalapartarekin laguntzen, Alazne Begiristain eta Iker Muguruza hain zuzen ere. Landarbaso Abesbatza polifonia sailean eta folklore sailean aritu da. Horretaz gain, Zarautzen ere aritu ziren kantuan aurreko larunbatean.

## Trikitilari Gazteen XX. Txapelketan arituko dira igandean, Azkoitian

Argazkikoak Manex Torrealdei eta Eneritz Agirre dira, Zumarte Musika Eskolako ikasleak. Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XX. Txapelketan parte hartu behar dute. Asteburu honetan, Azkoitian jokatu den kanporaketan arituko dira. Hauek dira jo behar dituzten doinuak: Bizkaiko trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina.

Azkoitiko kanporaketa gaintzen badute, Zaldibarren jokatu den finalera sailkatuko dira. Finala azaroaren 27an izango da. Zorte on bio!



ENERITZ AGIRRE ETA MANEX TORREALDAI, ZUMARTEKO IKASLEAK.

  
ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurra 2, 943 11 82 53

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

## 2012ko Olinpiar Jokoei begira, gogotsu eta ilusionaturik dago Oiana Blanco

**B**erak dioen moduan, “oraindik asko geratzen da”. Bidea luzea da, pausoz pauso jorratzen joan nahi du, helmugan ahal duen guztia emateko. Usurbil Judo Klubeko kide Oiana Blanco 2012an Londresen jokatuko diren Olinpiar Jokoei begira dago jada. Gogotsu, ilusionaturik, eta momentuz, postu egokian sailkatuta. Mundu mailako hitzordurako Basque Team bilgunea, baina bereziki Kiroldgi txalotu nahi du, herrialdeko kirolarien maila ona lagundu eta bultzatzeko egiten duen lanagatik.

**NOAUA!** Olinpiar Jokoei begira, toki onean zaude oraingoz, ezta?

**Oiana Blanco.** Orainxe sailkapen barruan nago hamaikagarren postuan, baina maiatzera arte txapelketa asko daude, gauza asko gerta daitezke. Ezin gara lasaitu, hor egon behar dugu borrokan, puntu gehiago lortu eta sailkapen hori jada lotuago edukitzeko. Aurre aurrean daudenei badakigu ez diegula harrapatuko, baina behintzat atzetik daudenak ez aurreratzea eta gertu dauden horiei pixka bat aurre hartzea izango da helburua.

**N.** Udan Londresen egoteko zer modutan egon beharko zenuke sailkatuta?

**O. B.** Munduko sailkapenean lehenengo hamalauen artean. Herrialde bakoitzetik gehienez partaide bat sailkatzen da pisu bakoitzean. Bat baino gehiago egonez gero, postuetan txanda pasa egiten da, hamalau herrialde desberdinetako partaideak lortu arte.

**N.** Londres 2012 helmuga horretara ailegatu aurretik, nondik nora ibiltzeko



DIARDO KIROLDEGIAN ARITU GINEN OIANA BLANCOREKIN SOLASEAN.

asmoa duzu hurrengo hilabeteetan?

**O. B.** Azaroaren 19 eta 20ko asteburuan Amsterdamen izango naiz. Gero abenduan asiara bira dugu. Japonian egongo ginatke lehenik, eta Txinan gero. Aurtengoari dagokionean hitzordu horiek izango genituzke.

Europako txapelketetarako prestakuntza berezia egin genuen. Orain maila mantentzen saiatzen ari gara. Une honetan ez gara Olinpiar Jokoetarako prestatzen ari. Maiatzean sailkatuta gaudela esaten badigute, orduan bai, uztaila bukaerara arte gogor entrenatuko gara.

### OIANA BLANCO

“Behin maila batetik aurrera kirol guztiek asko exijitzen dute, gauza asko utzi behar dituzu”

**N.** Hitzordu garrantzitsu horretarako prestakuntza berezirik beharko al duzu?

**O. B.** Neure entrenamenduak klubeko beste kideenekin alderatuta, desberdinak dira. Hau neure lana da, goiz eta arratsalde honetarako nago. Urte osoan gaudela kontuan izanda, ezin da beti puntan egon. Mundialerako eta

**N.** Sasoi aldetik une onean zaude, nola ikusten duzu zeure burua?

**O. B.** Oso ondo, gogotsu eta ilusio handiarekin. Gauzak gogoz eta ilusioz egiten ez badira oso zaila da ateratzea. Behin maila batetik aurrera kirol guztiek asko exijitzen dute, gauza asko utzi behar dituzu eta alde positibo bat izan behar du zuretzat. Errekonpentsa bat izan behar duzu, pertsonalki beteta sentitu behar duzu gauza horiekin, bestela oso zaila da. Une honetan, egia esan oso gustura ari naiz. Azken txapelketan bai ez nintzela hain ondo sentitu baina oso gustura ari naiz lehiatzen. Hilabetero txapelketak ditut eta ez zait batere gogorra egiten ari.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ALKORTA**  
**AUTOZERBITZUA**

**Baserriko haragia**

-Frutak -Barazkiak -Etxeko produktuak -Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

# “Oso emaitza onak dituen kluba da gurea”

NOAUA! Usurbil Judo Klubak txapelketaren bat jokatu eta beti dominaren bat irabazi duzuela entzutera ohituak gaude. Geure ingurutik kanpo zer nolako oihartzuna du herriko klubak?

**Oiana Blanco.** Kanpora noanean, Federazio Nazionalak dira txapelketa hauetako gure inskripzioak egiteko gai diren bakarrak. Orduan, kasuotan Usurbilgo izena ez da entzuten, herrialdean aipamena dago soilik. Baina estatu espainiar mailan oso ezaguna da kluba. Kluben liga egiten hasi ziren mutilak, gero neskak ere sartu ginen. Nahiko postu onak lortu ditugu. Espainia mailan oso emaitza onak dituen kluba da, maila gazteenetatik senior arte. Jendeari Usurbil Judo Klubekoa zarela esatean, segituan kokatzen zaitu.

**N. Judo klaseak ere ematen dituzu. Ikuspuntu horretatik, zer ezaugarri betetzen ditu zuen klubak duen maila izateko?**

**O. B.** Zer giro dagoen. Nirekin entrenatzen dutenak txikitatik elkarrekin egon dira, eta jada, euren artean oso giro ona dute. Kide berri bat etortzean, neure kasuan bezala, segituan oso ondo onartzen zaituzte eta betidanik bertan egon

izan bazina bezala sentitzen zara. Azkenean ondo pasatzera etortzen gara, giro on bat sortu eta bide batez judo ikasten dugu. Ikasleen kasuan, euren artean harreman ona sortu eta errespetua lantzen dugu; errespetua bai tatamiari, irakasleari eta euren artean. Judoko edozein ekintza egin aurretik binaka jarri eta elkar agurtu eta amaieran eskua eman behar diote elkarri. Gerrikoz aldatzeko portaera ere kontuan hartzen baita. Errespetu hori judok bere nortasunean markatua du. Garrantzi asko ematen diogu horri, judo egiten gozatzea bultzatzearekin batera.

## “Nire eskuetan dago”

**N. Olinpiar Jokoetan parte hartu eta domina bat eskuratzeak zer suposatuko luke zuretzat?**

**O. B.** Azkenean judo munduan txapelketa garrantzitsuena Olinpiar Jokoak dira. Beti txikitatik amesten duzun zerbait da. Lehen urruti ikusi arren, orain diot ez dela ametsa, neure eskuetan dagoela baizik. Hori gertatuko balitz, urteotako ibilbide osoa errekonozitua ikusiko nuke. Familia, egunero entrenatu eta laguntzen aritu direnak errekonpentsatzeko modu bat, hori guztia beraiekin partekatuta.



TXAPELKETA GARRANTZITSUENAK  
OLINPIAR JOKOETAKOAK DIRA.

## Etxeko eskubaloitako partidak

**Kadete neskak, Euskal Liga, 14.30h**  
Usurbil K.E. - Zuazo

**Jubenil neskak, Euskal Liga, 16.00h**  
Usurbil K.E. - Zuazo

**Senior neskak, Euskal Liga, 17.30h**  
Atez Ate Usurbil - Urdaibai

**Senior mutilak, 2. nazionala, 19.00h**  
Atez Ate Usurbil - Hondarribia

## GPS ikastaroa, Andatza Mendi Taldeak antolatuta

**G**PSrekin orientazio ikastaroa antolatu du Andatza Mendizale Elkarteak, azaroaren 21, 23 eta 26rako. Gipuzkoako Mendizale Federazioko aditu Jaime Eguzkitzak eskainiko du ikastaroa euskaraz. Ekimenean parte hartzeko lehentasuna Andatza Mendizale Elkarteko kideek izango dute. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 14ra arte.

**Azaroak 21 / 23, arlo teorikoa**  
Artzabalen, ordutegia: 19:00-21:30.

**Azaroak 26 larunbata, praktikoa**  
Andoainen, Adarran. 9:00-18:30.

Informazio gehiago: [andatza.com](http://andatza.com)

## Rayo Vallecano-Reala ikustera joateko autobusa

**I**gande honetan, azaroaren 6an, Realak Rayo Vallecanoren aurka Madrilen jokatu duen neurketa ikustera joateko aukera izango da, Agirretxe Taldeko kideek autobusa antolatu baitute. Goizeko 9:00etan irtengo da Oiarde Kiroldegi paretik. Eguna Madrilen pasako dute. Aurreikusia dutenez, goizaldeko ordu bata aldera helduko dira Usurbila. Izen emateko epea zabalik dago 666 987 083 telefono zenbakian. 65 euroren truke, autobusean joan etorria eta Real eta Rayo Vallecanoren arteko partida ikusteko sarrera eskuratu ahal izango da. Lehenbailehen apuntatzeko dei egiten diete Agirretxe Taldekoek. Plazak bete arteko lekua egongo da.

## Usurbil KEren zozketan saritua izan da

**M**anuel Unanueri otordua Antxeta jatetxean. Eskubaloitako taldekoek burutu ohi duten azken zozketan, 5.679 zenbakidun errifa sarituaren jabea da bera. Usurbil KE taldekoek errifak erosten edota laguntzen duten guztiak eskertu nahi dituzte.



## AGAYA aldizkariaren lehen alea

**N**OAU! Txiki atalaren bitartez Udarregiko ikasleekin egiten dugun moduan, aurrerantzean ere ITAYA gazte taldekoen esku utziko dugu NOAU!ko orritxo bat. Hilean behin, AGAYA izango da tarte honen izena. Hau da lehen alea.

### ZER DA AGAYA?

Landare zein zuhaitzei euskarri modura laguntzen dien makila. Aginagan erabiltzen den hitza da.

### ZER DA ITAYA?

Marasma saretzen ekimenaren bitartez lehen aldiz galdeketa bat egin zitzaion euskal gazteriarri zazpi herrialdeetan. Honela, lehen aldiz gazteek hartu zuten hitza. Usurbilen 16-25 urte bitarteko 100 gazteri egin zitzaion galdeketa eta honako arazo hauek ikusten zituela agertu zuen gazteriak:

### GAZTERIAREN SAKABANAKETA

Usurbilgo gazteriaren artean elkarren arteko komunikazio eta harreman falta nabarmena da. Horrek bultzatzen gaitu iritzi eta ideiak ez konpartitzera, Usurbilgo gazteen batasun eza indartuz. Ez dugu elkartasun zein laguntzarik ematen, ondorioz, gizarteak inposatutako egoismo zein indibidualismoa gailentzen da gure artean. Honen errudun nagusia lokalak direla ohartzen gara, gazteen arteko muga bihurtzen direlarik, baina, guretzat ere beharrezko direla nabarmentzen dugu.

### ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren arazoa gure artean ere geroz eta nabarmenagoa da. Etxebizitza duin bat edukitzeko ez da etxe bat erosi beharrik eta alokairu soziala bultzatzea nahi dugu.

### LANA

Lana bilatzeko eta hau baldintza onekoa izateko ere zailtasunak ikusten ditugu, ezinezkoa dirudi behin-behineko lanpostua ez den bat bilatzea. Gazteak izateagatik baldintza txarretan eta gurekin nahi bezala jolastuz edukitzen gaituzte. Eta ez dugu kexatzeko aukerarik bestela kalera goaz eta.

### LZP PLANA

Arazo larrienetako bat sasi gobernuek eraiki nahi duten etorkizuneko Usurbil da. Beharrezko azpiegitura modura saltzen dituzten makroproiektuek Gipuzkoarentzat hipotekazioa eta gure amalurarentzat suntsipena dakarte.

**Makrokartzela, Erraustegia, Kuartela...** Etorkizuna gure esku dago eta guk nahi dugun Usurbilengatik borrokatzen hasteko ordua da. Zubietako flashmob-aren moduko ekimenak aurrea eramaz eta abar.

### EUSKARA

Euskararen erabilera jaisten ari dela nabaritu dugu gero eta gazteagoen artean, hau horrela dela uste dugu atzerritarrei lehen hitza erdaretan egiteagatik, gure hizkuntza barneratzen lagundu beharrean. Gure ustez Usurbilen joera honek aldatu egin behar du herri euskalduna izaten jarrai dezagun.

### ZERGATIK AGAYA?

Belar txarrak moztera bakarrik ezin gara mugatu, zuhaitz ederrak lortzea dugu eta helburu, gazteri trinko eta emaria lortzeko. Aldizkari honen helburua jendeari pentsaraztea izango da, gazteri kritiko bat lortzeko. Komunikabide eskuindar eta desinformatzaileen aurrean beste komunikabide aske eta kritiko bat sortuz.

ITAYAk hilean behin aldizkari hau zuenaginatuko dizue.



HILEAN BEHIN ARGITARATUKO DA ITAYAREN ORRI BAT NOAU!N.

### KOMUNIKAZIOA

Gazteen aurrez aurreko harremana oso urria da, horren orde sare sozialen bitartez egiten ditugu ustezko harreman horiek. Sare sozialek menpekotasuna sortu eta aurreiritziak eta estereotipoak bultzatzen dituzte.

### BERDINTASUNA

Ustez, berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizi gara, baina, gazteok buruari pare bat buelta eman ondoren teoriarik gertatzen dela nabari dugu. Usurbilen ez dugu neska mutilen arteko bazterketarik identifikatu, bai ordea bereizketak, herrian ia ez dago talde edo koadrila mixtorik eta neska mutilen artean erlazionatzeko zailtasunak ikusten dira.

### HEZKUNTZA

Boloigna prozesuaz hitz egin da eta honen inguruan ez dela nahiko informazio eman eta inposatua izan dela iritzi da. Boloignaren eraginez aisialdirako denborarik gabe geratzen gara ikasle sumiso eta ez kritikoak sortuz. Hala ere, gizartea iraultzeko oinarritzeko instrumentu gisa ikusten dugu unibertsitatea.

### EUSKAL HERRIKO EGOERA

Herri ukatu batean gazte izatea ez da erraza. Orokorrean euskal gazteria zapalkuntza gogorra jasaten ari da, atxiloketa masiboak ohiko bihurtu dira tortura erabiliz gazteen inguruan beldurra zabaltzeko asmoz.

### DROGAK

Herri honetan drogaren kontsumo handi baten aurrean aurkitzen gara eta honek guregan eragin zuzena du. Egoera hau oso kezagarritzat hartzen dugu.

### PASIBOTASUNA

Pasibotasuna izan da Usurbilgo gazterientzat arazo nagusia, oso pasibotasun handia dugu herrian eta erosotasun handiarekin bizitzera eramaten gaitu, benetan eragiten diguten inguruko arazoetatik aldentuz.

Hala ere, gazteriaren gehiengoak ilusioz ikusten du etorkizuna eta egoera iraultzeko aukera gure esku dago, nahi duguna, nahi dugun bezala eta nahi dugunarekin egin dezakegu.

### HARRO GAUDE GAZTE IZATEAZ!



## Agenda!

**Azaroak 3 osteguna**  
Paul Rios Lokarriko koordinatzaile-aren hitzaldia, 19:30ean Sutegin.

**Azaroak 5 larunbata**  
Xentimorik gabe, 19:00etan Sutegin. Sarrerak: NOAUA!, Txiriboga.

**Azaroak 6 igandea**  
Mursego, 19:00etan Sutegin.  
Sarrerak: NOAUA!, Txiriboga.

**Azaroak 11 igandea**  
Kayaksurf hitzaldia eta proiektzioa, 19:30ean Sutegin. Doan.

### Goardiako farmaziak

**Azaroak 3, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 4, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Azaroak 5, larunbata**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 6, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 7, astelehena**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Azaroak 8, asteartea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Azaroak 9, asteazkena**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 10, osteguna**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Azaroak 11, ostirala**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 12, larunbata**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Azaroak 13, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.  
www.noaua.com webgunean 2011ko egutegia

## Kayaksurf-era hurbiltzeko aukera

**K**ulturaldia aste honetan hasi da Keta datorrenean izango du jarraipena. Azaroaren 11n ostirala, Kayaksurf kirolari buruzko hitzaldia eta proiektzioa eskainiko digute horretan iaioak diren bi herritarrek.

Xabier Olano eta Garazi Iturralde aspaldi hasi ziren kayaksurf egiten. Egunotan, ordea, albiste izan dira. Euskal Selektzioko beste bederatziki berekin batera, mundu mailako txapelketa irabazi dute Amerikako Estatu Batuetako uretan.

Hori taldekako lehian, baina banaka ere lehen postuetatik gertu ibili dira euskal ordezkariak. Garazi Iturralde



MUNDUKO TXAPELDUN IZAN DIRA EUSKAL ORDEZKARIAK.

zubietarra, esate baterako, hirugarren izan da bere espezialitatean.

Datorren astean, Xabier eta Garazi Sutegin izango dira eta kayaksurf kirolari buruzko azalpenak eskainiko dizkigute. Irudien bitartez emango dizkigute euren abenturen berri.

### Hilean behin elkartuko dira Ziortzakoak

**Z**iortza Gazte Elkartekoak hilean behin elkartzen dira. Iaz hasi ziren dinamika horretan, eta aurten bide beretik jarraitu nahi dute. "Saioak gutxi gorabehera hilabetean behin izango dira, azaro hasieratik maiatza bukarara", adierazi digute Ziortza Gazte Elkartetik.

Interesik dutenentzat, bilera irekiak antolatu dituzte datozen egunetarako:

**DBH 2. maila**  
Azaroaren 3an osteguna, 19:30ean.

**DBH 3. maila**  
Azaroaren 4an ostirala, 19:30ean.

**DBH 4. maila**  
Azaroaren 5ean larunbata, 19:30ean.

Ziortzaren egoitza Kale Nagusia 25 helbidean dago.

E-posta: ziortzage@gmail.com

### Familiaren garapen ebolutiboa izeneko tailerra

**A**urreko astean hitzaldi bat antolatu zen gai honen inguruan. Azaroan zehar ordea, tailer moduan landuko dute "familiaren garapen ebolutiboa". Hitzaldia bezala, tailerra ere Izar Arregi psikologoak zuzenduko du eta Udarregi ikastolan eskainia izango da. Adin-tartearen arabera antolatu dira tailerrak.

**HHko ikasleen gurasoentzat**  
Azaroak 7, 14, 21. 17:00-18:30.

**LHko ikasleen gurasoentzat**  
Azaroak 8, 15, 22. 17:00-18:30.

**DBHko ikasleen gurasoentzat**  
Azaroak 10, 17, 24. 17:00-18:30.

Antolatzailea: Hitz-Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**BENTA TABERNA**  
HANBURGESAK  
Oilasko erreak Ogitartekoak  
943 36 93 05

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

## ETXEBIZITZA

- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 3 logela, 2 bainu-gela, sukalde eta egongela. Tlf.: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santucenen. Hiru logela, sukalde, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukalde, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 2 logela, sukalde, egongela. Eguzkitsua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudana pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santucena 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroekin. 685 731 792.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzentzako moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrea, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aritxitzo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalean. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

## LANPOSTUAK

## Lan-eksaerak

Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz

- haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari euskaldun bat behar da. Lana egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

## Lan-ekskaintzak

- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrik emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziarik eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf: 626 370 969.
- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf: 637 110 069.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik emateko prest. Matematika, Marraketa... Tlf: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf: 637 110 069.
- Matematikako klase partikularrik, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrik emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehentetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditu ikasgai guztietan. Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lane-

- an aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo niritzuke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota haurrak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 616 260 451.
- 3 hilabeteko Seter ingeles arrazako txakur txikiak salgai Aginagan. 943361512 (eguerdiko 12:00etatik aurrera).
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurtegia eramango gaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarritakoa gailu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- Kalezar auzotik txirridula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko moda-koa, palankakoz kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan koxka bat dauka-kume gara etxe bila. 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriko. 666539284
- Masajek ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta ezaten dena) erosiho nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburategian, marxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltazue. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaud: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikari naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak!!** Berandu baina zorionak, ea erronda bat noiz pagatzen diguzun. Muxu handi bat, badakizu noren partez!



**Azaroaren 2an 6 urte handi bete dituk!** Muxu mordoia etxeko guztien partez eta beti bezain jator jarraitu. Maite zaitugu!

**Oharrak, zorion agurrak, jai edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com**

**Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!**

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Josue  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA



# Otar-Goxo

Elkargiak




**Hirukide**  
Hile-Ugaitu Lanilen Elkartetako Iniziatiba  
Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euzkadi

Hirukide elkarteko kide diren  
familientzat... **%5 EROSKETA GUZTIETAN!**

·harategia ·urdaitegia ·frutak ·barazkiak ·kontserbak ·berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

**PSU**  
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



**Enar**  
ESTETIKA

munalurra 2, Usurbil  
943 571 680

**FOTODEPILAZIO  
ESKAINTZA:**

**2 ZONALDE AUKERATU  
eta**

**1 BAKARRIK ORDAINDU**

3 hilabetetan interesik gabe  
ordaintzeko aukera  
HURBILAGO TXARTELAREKIN

*Informa zaitez!*

Depitotal®

# Zubirik zubi ekimena

**Txokoalde, Zubieta eta Santueneko  
zubiak oinez lotzeko ekimena**

**AZAROAK 6, IGANDEA, 11:00etan**

Bi talde osatuko ditugu, bata Zubietako Aliri zubian  
eta bestea Txokoaldeko Altzonazko zubian.

Goizeko 11:00etan hitzordua bi zubietan jarri dugu.  
Ondoren Santueneako Zorrotzako zubira abiatuko gara  
bertan bi taldeak bat eginez. Bi deialdiak bideoz grabatuko  
ditugu eta beraz, ahalik eta herritar gehiena biltzea  
da helburua. Ibilaldia Mikel Laboa plazan amaituko da.  
Martxa koloretsua izatea lortu behar dugu!

**Goazen denok zubiak eraikitzera!**



**Eraiki zubia**